



# ***e-kin* prozesua**

Jarraian, *e-kin* proiektuak izandako prozesuaren garapena partekatzen da, formulaziotik topaketen ondorioetaraino, etorkizunean jarraipena emateko aukerak proiektatuz.

BILBO, 2023HO AZAROAREN 18 DE NOVIEMBRE / 11.00ETATIK 19:30ETARA

# Ekin

diseño con sororidad



**MÁS INFORMACIÓN:**

[wikitoki.org/pr/e-kin-2023-2/](https://wikitoki.org/pr/e-kin-2023-2/)  
[ekin.sororidad@gmail.com](mailto:ekin.sororidad@gmail.com)

## Topaketa

11h a 14h

Sesión de comunidad ¡Inscríbete!

14.30h a 16h

¡Comemos juntas!

16h a 18.30h

Pecha Kucha

18.30h


Nos tomamos algo juntas

Antolatzaileak



**WIKITOKI**  
Elkarsorkuntzarako Laborategia  
Laboratorio de prácticas colaborativas

Babesleak



# Aurkibidea

<b>1. AURRETIKO</b>	<b>4</b>
1.1. Helburuak	4
1.2. Prozesua	4
<b>2. KOMUNITATE SAIOA</b>	<b>8</b>
2.1. Helburuak eta parte-hartzaileak	8
2.2. Metodologia eta edukiak	10
2.3. Ondorioak eta hurrengo urratsak	21
<b>3. PENTXA-KUTXA</b>	<b>8</b>
3.1. Helburuak eta metodologia	23
3.2. Proiektuak	27
<b>4. JARRAIPENA</b>	<b>36</b>
4.1. Hurrengo urratsak	36
4.2. Konexio espazioak	37
4.3. Parte-hartzea	39



**e-kin, diseinua ahizpatasunez, [Mundo Ivaginariok](#) (Zirikatuz Feminista Taldea) eta [Wikitokik](#) bultzatutako proiektua da, euskal lurraldeetan arkitektura eta diseinuaren arloan dauden emakumeen komunitate bat sortzeko.** Proiektu honen helburua arkitektura, hirigintza eta diseinuaren sektoreak eraldatzeko elkar-zaintza eta elkar-laguntza sareak osatzea da, parekideagoak eta feministagoak izan daitezen.

# 1. AURRETIKOAK

## 1.1. Helburuak

**e-kin-en helburu nagusia** diseinuaren eta arkitekturaren sektoreko emakumeen **komunitate bat** sortzea da, sektore horretan **dinamika feministagotarantz** aurrera egiteko.

### Helburu espezifikoak

- Euskal lurraldeko diseinuarekin, arkitekturarekin eta generoarekin zerikusia duten pertsonak, erakundeak eta instituzioak **mapatzea**.
- Euskal lurraldeko diseinuarekin, arkitekturarekin eta generoarekin zerikusia duten edo interesa duten **pertsonak eta erakundeak elkarrekin lotzea**, zaintzak erdigunean jarriz, sektoreak gero eta arduratsua izateko eta “kontziliaziotik erantzunkidetasunerako” trantsizioa gauzatzeko.
- **Emakumeak** diseinuaren, arkitekturaren eta hirigintzaren arloetan **profesional gisa duen egoerari** lotutako **informazioa, problematikak eta arrazoiak** ezagutzea eta bateratzea.
- Sektoreko dinamika patriarkalak aldatzeko **ekintza eremuak identifikatzea**.
- Modu kolektiboan **diseinu/arkitektura feminista** zer den eta zer dakarren hausnartzea, emakumeek lotutako eta egindako proiektuetatik abiatuta.
- Diseinu feministarekin lotutako **ekintzak edo ideia posibleak** abian jartzea edo Euskal Herriko diseinuan eta arkitekturaren feminismoen eta berdintasunaren ikuspegitik eraldaketa sustatzen dutenak; pertsonak eta erakundeak saretzea eta, horrela, euren etorkizuneko garapena sustatzea.
- e-kin-en 2022aren lehen fasean hasitako **lan-prozesuari jarraipena ematea** (lan eremuak eta gobernantza ereduak zehazten) eta hurrengo ekintzak identifikatzea.

## 1.2. Prozesua

Lan prozesua **aurreko urteko** (2022) prozesuaren **jarraipena** izan da, itzuli eta justifikatu ondoren, **hirugarren Topaketa** bat egin ahal izateko berriro mobilizatu gara. Berriro ere 2023ko Bilbao Bizkaia Design Week ekimenaren baitan.

### Lan taldea

lazio prozesuaren ondoren, Wikitokitik sortutako lan taldeak proiektuari jarraipena eman dio, 2023an garatzeko baliabide ekonomikoen bila. 2023. urtearen hasieran, Wikitokiko hainbat bazkide elkartu ginen proiektu honen bigarren etapa formulatzeko, finantzaketa bilatzeko eta gauzatzeko. e-kin 2023 bultzatutako talde eragilea honako hauek osatzen dute:

- **Isabel Tomás** / Mundo Ivaginarioko bazkidea eta Wikitoki anfitritioia

- **Elisa de los Reyes García** / Pezestudio
- **Thais Ibarro** / cAnicca
- **Izaskun Soto** / Hiritik At
- **Lorna Biermann** / Veala
- **Uxue Pérez de Pipaon**
- **Leire García** / ColaBoraBora


Beste laguntzaile batzuk:

- **Yolanda Reclusa**
- **Bea Aparicio** y **Janire Orduna** / Femgarabat

## Finantzazio bilaketa

Zirikatzuz Feminista Taldearen eskutik (**Mundo Ivaginario** bezala ezaguna), **Bizkaiko Foru Aldundiaren** eta **Emakunderen** deialdietara aurkeztu ginen, eta bien babesa jaso genuen. Bi diru-laguntza hauei esker eta Wikitokiren laguntzari esker, aurten egindako lana aurrera ateratzea posible izan da.

## e-kin 2023ko faseak



### **1. FASEA: TALDE ERAGILEA SENDOTU ETA HANDITU. 2023ko urtarrila-otsaila**

Diseinuaren sektoreko emakume feministek osatutako talde eragilea definitu zen, lankidetzak eta partaidetzak prozesuetan adituak diren emakumeekin. Gainera, koordinazio, idazkaritza tekniko, komunikazio, jarraipen, gauzaperen eta ebaluazio rola eta zereginak banatu ziren.

### **2.FASEA: PROZESUAREN DISEINUA ETA PARTE-HARTZEKO METODOLOGIAK. 2023ko otsaila-urria**

Partaidetza estrategia orokorra diseinatu zen: eragile berriak sartzeko mekanismoen diseinua, topaketaren aurreko kontsulta faserako metodologiaren diseinua, dinamiken diseinua eta topaketa egiteko behar diren materialen eta logistikaren prestakuntza (Topaketa 3).

### **3. FASEA: IKERKETA PARTE-HARTZAILEA ETA LANKIDETZAK. 2023ko martxoa-iraila**

Topaketaren aurreko talde lanaren garapena: edukiak eta kontsulta mekanismoak diseinatu ziren, balizko lan ildoak eta etorkizuneko e-kin-eko sostengu-egiturari buruz komunitatearekin hausnartzeko.

### **4. FASEA: TOPAKETAREN GARAPENA. 2023ko urria-azaroa**

III. Topaketaren garapena horrela egituratu zen: goizean, lan-saio bat komunitatearen eta proiektuaren hurrengo urratsak pentsatzeko; ondoren, bazkari komunitarioa; eta, arratsaldean, diseinu feministari lotutako proiektuen aurkezpen laburrak (Pentsa Kutxa).

### **5. FASEA: ITZULTZEA, POSTPRODUKZIOA ETA HURRENGO URRATSAK. 2023ko abendua-urtarrila**

Memoria eta prozesuaren emaitzak dokumentatzea, editatzea eta argitaratzea. Komunitatearentzat definitu zituzten hurrengo urratsak aktibatzea eta hurrengo urratsak egutegian jartzea, proposatutako helburuak indartzeko.

## **Topaketaren egitura**

III. Topaketak bi une izan zituen, **goiza eta arratsaldea**. Horrez gain, alde aurreko kontraste saio ireki bat ere egon zen. Hori guztia, **Bilbao Bizkaia Design Week 2023** ekimenaren baitan.

### **→ Kontraste saio irekia**



**Topaketa-aurreko** kontraste saio bat, online formatuan, topaketaren planteamenduaren zenbait alderdi balioztatzeko edo birformulatzeko aukera izateko. Talde eragileko pertsonak eta prozesuan interesatuek, aurretik e-kin-en parte izan zein ez, parte hartu zuten.

→ Komunitate saioa



Goizean zehar emakumeentzako gune eskusiboa, **e-kin** komunitatearen **etorkizuna, egitura, helburu zehatzak eta hurrengo urratsak** elkarrekin pentsatzeko.

→ Pentsa Kutxa



Hainbat erakunderen edo eragileren **aurkezpen laburrak**. Arratsaldean, publiko guztiarentzat irekia, **diseinuari eta feminismoari** lotutako proiektuak ikusarazteko, ezagutarazteko, eta elkarrekin hitz egiteko eta hausnartzeko azken gunea.



## 2. KOMUNITATE SAIOA



### Komunitatea elkarrekin diseinatzen dugu.

2023ko azaroaren 18ko goiza Zabalguneko eraikinean.

#### 2.1. Helburuak eta parte-hartzaileak

Talde eragiletik nahiko argi geneukan sektoreak dituen arazoei buruz hausnartzen jarraitu baino lehen, **antolatzeko eta ekintzara pasatzeko** urrats bat eman behar genuela. Hori dela eta, komunitatearekin egindako saio honen helburua, epe labur-ertainera *e-kin* izan daitekeena marraztea izan zen, ditugun beharretatik abiatuta gure sektoreari balioa nola eman diezaiokeen definituz; baina, geure buruarekin eta errealitateekin zintzoak izanez.

**III. Topaketa** hau, 2022an egindako parte-hartze saioak bezala, **entzute, truke eta sorkuntza kolektiborako gunea** izan zen. Harremani zentraltasuna eman arren, *e-kin*-en etorkizuneko gorputza egituratzeko eta definitzeko esparrua izan zen. Alde batetik, harreman informaleko uneak bilatu genituen, guztion artean espazio atsegina eta intimoa izateko, eta galdera hauei erantzuna bilatzeko:

- *e-kin* zer izatea nahi dugu?
- Nola funtziona dezake?
- Zer baliabide behar ditugu horretarako?
- Nola gustatuko litzaidake inplikatzeara? Eta nola inplikatu naiteke?

Saio osoan zehar **Desioaren eta Errealitatearen** arteko dikotomia mahaigaineratu zen. Helburua gutxienekoen agertoki posible bat elkarrekin definitzea izan zen, gure errealitateak aintzat hartuko dituen moduan lan egiten jarraitzeko.

## Parte-hartzaileak

**Diseinuaren arlo ezberdinetako 18 eta 75 urte bitarteko 23 emakumek** hartu zuten parte. Hala nola, arkitekturakoak, ilustraziokoak, diseinu estrategikokoak edo diseinu grafikokoak, edota diseinuarekin arlo pertsonaletik eta ez profesionaletik lotutakoak. Parte-hartzea **mamitsua** izan zen pertsona kopuru mugatuari esker. Saioaren helburuak oso modu positiboan bete ahal izan ziren, eta hausnarketa guztiak entzuteko kalitatezko denbora eskeini zen.




## 2.2. Metodologia eta edukiak

Hiru orduko **ko-diseinu saioa, sormenetik eta ikuspegi aniztasunetik** dinamizatua. Urratsak ematen jarraitzeko, *e-kin* zer izan behar den eta nola egituratzen den azaltzen duen **ikuspegi kolektiboa** sortzean zentratu zen saioa.

Jarraian xehetuko dugun komunitatearen saioaren egitura honako hau izan zen:

1. Ongietorria
2. Testuinguruan jartzea
3. Icebreaker: Soziodrama
4. Agertokiei buruzko lana
5. Bateratze-lana
6. Adostasuna eta inplikazioa
7. Elkarrekin bazkaldu

### Ongietorria




Espaziora **astiro eta zainduta** iritsi ginen, eta astiro iristeko ordu erdiko tartea izan genuen, kafe bat hartzeko eta zerbait jateko, elkar agurtzeko eta berriketan hasteko, "Miro analogikoan" mapaketa osatzeko (bertaratuei buruzko informazioa), sarea zabaltzen jarraitzeko, lanerako espazioa eta materialak aztertzen hasteko, eta abar.

## Testuinguruan jartzea



Espazioa saioari laguntzeko konfiguraturata zegoen, aurreko saioetan egindako lana biltzen zuten **materialen bilduma** batetik abiatuta, elkarrizketen eta akordioen **abiapuntu** izateko.

Abiapuntu izan genituen **gako batzuk** nabarmentzen dira, espaziora horma-irudi moduan eraman genituenak, saioan bertan egon zitezen:



- > Publikoa
- > Misioa / ikuspuntua
- > Irismena
- > Eragina
- > Helburu orokorrak
- > Funtsezko jarduera
- > Identifikatutako desberdintasunak
- > Helburuak/beharrak/zailtasunak
- > Komunikazio-bideak
- > Lan akordioak
- > Antolaketa
- > Beste batzuk (inspirazioa)
- > Iraunkortasun ekonomikoak

Horiek guztiak, orain arte eraikitzen ari ginen oinarritik, baina e-kin garatzeko prozesuan zehar zalantzan jarri eta alda daitezkeenak.

\* [Miron](#) aurkitu ditzakezu.



## Icebreaker



Kokatzten hasteko eta gaian sartzeko, **termometro** bat planteatu genuen, bakoitza nondik datorren eta non kokatzen den ezagutzeko. **Gaia kokatu eta gu kokatu**, honako galdera hauen bidez espazioaren mutur batean edo bestean kokatzeko:

- **Zure lehen e-kin-eko saioa da?**  
Bai (1.a da) \_\_\_\_\_ Ez (Ez da 1.a)
- **Prest nago talde/gune berriekin bat egiteko?**  
Bai (noski!) \_\_\_\_\_ Ez (gainezka nago)
- **Harremanetarako eta dibertsiorako gune bat gehiago interesatzen zait, edo aldarrikapenerako, eskaerarako, aktibismorako...?**  
Erlazionala \_\_\_\_\_ Aldarrikatzailea

Taldearen erdia, gutxi gorabehera, e-kin-eko saioren batean **egona zen**.

Gehienak **irekita zeuden** gune berrietara **batzeko**, baina "agian" baten atzean sakabanatuta.

Azken galderari dagokionez, **harremanaren eta aldarrikapenaren** artean, sakabanaketa egon zen, baita biak presente egon behar zutela uste zuten ahotsak ere.

**Berotze-ariketa**  
→ **Agertokiak**



Lanean hasteko, E-kin garatzeko aukeretan pentsatzen lagunduko ziguten **agertokien proposamenak** partekatu genituen. Definizio orokor batez gain, hausnartzeko gai batzuk zehazten ziren, hala nola, **helburua, maiztasuna edo funtzionamendua**; baita proposamena baloratzeko parametro batzuk ere, **dedikazioari edo konpromisoari, antolaketa-konplexutasunari eta funtzionamendurako behar diren baliabideei** dagozkionak. Azkenik, **inpaktuaren** proiektio bat ere egin zen, maila pertsonalean, kolektiboan, sektorean edo gizartean eragina neurtzeko asmoz.

**Planteatutako agertokiak** honako hauek ziren:

# A

*E-kin emakume diseinatzaileen sarea da. Datu-base bat partekatzen dugu sektoreko hainbat alorretako profesionalekin, kontratazio, lankidetzeta eta abarretarako ballagarria izan dadin. Gainera, kolektiboarentzat interesgarria den informazioa partekatzeko edo diseinuaren arloari lotutako gai zehatzak helarazteko hainbat kanal ditugu. Horien artean, Miró kontaktuen gordailu gisa eta Telegram komunikazio-gune informal eta arin gisa. Adibidea: E-kin-en telegram taldea*

**Puntuak:**

- Zein da bere helburua?  
Informazioa, erreferentziak, lan-aukerak eta abar partekatzea.
- Zenbatero?  
Zehaztugabea: Informazioaren arabera.
- Nola funtzionatzen du?  
Modu espontaneoan eta irekia batu nahi dutenentzat.

**Parametroak:**

- Konpromiso- eta dedikazio-maila  
- [ ] +
- Antolamenduaren konplexutasuna  
- [ ] +
- Baliabide ekonomikoak, espazialak, etab.  
- [ ] +

**Inpaktua:**

*Ekin*

# B

*E-kin emakume diseinatzaileen taldea da, bi hilean behin batzen dena elkar ezagutu eta gure lana partekatzeko, eta elkar-zaintza eta elkar-laguntza sareak sortzeko helburuarekin. Zerbait hartzeko gelditzen gara dinamizatu gabeko topaketa erdi bat-batekoetan, dela parte-hartzaileen lan-espazioetan, taberna batean edo egokien deritzogun tokian. Adibidea: Ladies, wine & design*

**Puntuak:**

- Zein da bere helburua?  
Elkar ezagutzea diseinuaren sektoreko emakumeekin elkar-laguntza taldea sortzeko.
- Zenbatero?  
Bi hilean behin.
- Nola funtzionatzen du?  
Era nahiko espontaneoan, taldea irekita dago batu nahi dutenentzat.

**Parametroak:**

- Konpromiso- eta dedikazio-maila  
- [ ] +
- Antolamenduaren konplexutasuna  
- [ ] +
- Baliabide ekonomikoak, espazialak, etab.  
- [ ] +

**Inpaktua:**

*Ekin*

## C

E-kin emakume diseinatzaileen taldea da. Taldeko kideak alde aurretik ezarritako **gai zehatzetara buruzko hausnarketa-saioak antolatzen ditugu eta horietan parte hartzen dugu**. Saio bakoitzaren **prestaketa eta dinamizazioa kide-talde desberdin batek hartzen du bere gain**. Talde honen bitartez, esperientziak, iritziak, ikaspenak, etab. partekatzea bilatzen dugu. Hiru hilean behin elkartzen gara **helburu argi batzuekin eta saio egituratueta**n (gai-zerrenda, akta, etab.).

Adibidea: Irakurketa kluba

### Puntuak:

- **Zein da bere helburua?**  
Diseinuaren sektoreko desberdintasunei buruzko hausnarketa eta ikaskuntza kolektiborako talde bat aktibatzea.
- **Zenbatero?**  
3 hilean behin.
- **Nola funtzionatzen du?**  
Taldea finkoa da baina pertsona berriei irekita. Saio bakoitza egituratzeko antolatzen gara.

### Parametroak:

- Konpromiso- eta dedikazio-maila  
- [ ] +
- Antolamenduaren konplexutasuna  
- [ ] +
- Baliabide ekonomikoak, espazialak, etab.  
- [ ] +

### Inpaktua:



**Ekin**  
diseño con sororidad

## D

E-kin diseinatzaile taldea da diseinuaren sektorean eragina izan nahi duten **ekintza edo ekimen espezifikoak abian jartzeko** (aldarrikatzea, ikusaraztea, bultzatzea, ahalduntzea...). Taldeak lehenetsi, diseinatu eta **bere burua antolatzen du ezarritako ekintza gauzatzeko**. Helburu argiak eta metodologia egituratuak dago. Aldizkatasuna ekintza bakoitzaren beharren arabera zehaztuko da.

Adibidea: Topaketak eta E-kin saioak

### Puntuak:

- **Zein da bere helburua?**  
Diseinuaren arloko emakume profesional gisa gaur egungo egoera hobetzen laguntzea.
- **Zenbatero?**  
Beharren arabera.
- **Nola funtzionatzen du?**  
Taldea finko antolatua eta kolektiboaren helburuekin bat datorrena.

### Parametroak:

- Konpromiso- eta dedikazio-maila  
- [ ] +
- Antolamenduaren konplexutasuna  
- [ ] +
- Baliabide ekonomikoak, espazialak, etab.  
- [ ] +

### Inpaktua:



**Ekin**  
diseño con sororidad

## E

E-kin emakume **diseinatzaileek osatutako komunitatea** da. Hainbat ekintza-ildo garatzen ditugu estrategia komun batean oinarrituta, profesionalengan, sektorean eta gizartearen **eragin positibo eta eraldatzailea sortzeko**, diseinuaren bidez. Etengabeko dedikazioa eskatzen duen lanbidetza-gunea da, non **elkarlanean eta gobernantza soziokratikoan oinarrituta** antolatzen garen, gure proiektuak garatzeko eta erabakiak hartzeko.

Adibidea: Wikitoki.

### Puntuak:

- **Zein da bere elburua?**  
Barne-mailan zein gizarte-mailan eragin positiboa duten ekintzak garatzea.
- **Zenbatero?**  
Astean behin.
- **Nola funtzionatzen du?**  
Modu oso egituratu eta komunitatearen premiekiko erantzukizun-maila handiarekin.

### Parametroak:

- Konpromiso- eta dedikazio-maila  
- [ ] +
- Antolamenduaren konplexutasuna  
- [ ] +
- Baliabide ekonomikoak, espazialak, etab.  
- [ ] +

### Inpaktua:



**Ekin**  
diseño con sororidad

Agertokiek **aukera mailakatu** bat planteatzen zuten. Aurreko saioetatik ondorioztatutakotik, **e-kin**-eko komunitatearentzat **B, C** eta **D** agertoki onargarriak edo errealistak izan zitezkeen. **A** eta **E** agertokiek **bi muturrak** erakusten zituzten: egin litekeen gutxienekoaren eta gutxi gorabehera egiten dugunaren artean (**A**), eta etorkizunerako proiektzioa (**E**), bere konplexutasunagatik oraindik oso urrun ikusten duguna.

\* **Miroan** aurkitu dezakezue.



→ Sociodrama



Agertokietan talde txikietan lan egiten hasi aurretik, **soziodrama** bat planteatu genuen, agertokiaren planteamenduan agertzen ziren zenbait gairen inguruan taldearen **posizionamendua ikustarazteko** eta, horrela, taldearen **lehen inpresioak eta iritziak neurtzeko**. Honako 4 galdera hauen bidez egin zen:

- **ERAGINA:** zure ustez, zein mailatan eragin beharko luke *e-kin*-ek?  
*Balitzko posizionamenduak:*
  - Pertsonala
  - Taldekoa
  - Sektoriala
  - Gizartea
  
- **KOMPROMISOA/DEKAZIOA:** Zer konpromiso eta dedikazio maila eskaini nahiko zenioke *e-kin*-i? (Zure nahitik/motibaziotik)  
*Balitzko posizionamenduak:*
  - Astean behin
  - Hilabetean behin
  - Hiruhilekoan behin
  - Urtean behin
  
- **KONPLEXUTASUNA/BALIABIDEAK:** Zer egitura/antolaketa mota irudikatzen duzu parametro hauei dagokienez? (Lehenik baliabideen ardatza egin genuen eta gero konplexutasunarena)  
*Bi ardatzen gainean kokatzeko:*
  - Konplexua +
  - Baliabideak +
  
- **AGERTOKIA:** Zein agertoki iruditzen zaizu iradokitzaileena, errealistena, interesgarriena...?  
*Dagokion panelaren aurrean jarritz.*

Taldearen **sakabanaketa** etengabea izan zen, baina parte-hartzaileen hausnarketei dagokionez nolabaiteko **sintonia** sortu zen. Interes asko partekatu ziren eta gerora eraikitako agertokiaren proposamenetan islatu ziren.

**Inpaktuari** dagokionez, adibidez, **maila metatuak** direnez, denek ikusi zuten maila pertsonalean eta taldekoan izango zuen eragina, eta garrantzitsuenatzat jo bazuten ere, oro har, inpaktu sektorialeko nahia proiektatu zen, baita gizartean ere.

Bestalde, **dedikazioan**, bazirudien *hilean behin* edo *hiruhilekoan behin* tartetean pertsona gehiago zeudela. Halaber, *astean behin* edo *urtean behin* tartetean ere pertsonak egon ziren. Hau interesgarria da, sortzen den egituran **inplikazio-maila desberdinak** txertatzeko aukera balioesteko parada ematen baitu, pertsona aktiboenen edo ez hain aktiboen artean hainbat aukera eskainita.

**Baliabideen/konplexutasunaren** auziak elkarrekin baldintzatuta ote zeuden eztabaidatzea ekarri zuen, egitura zenbat eta konplexuagoa izan, orduan eta baliabide gehiago behar direla zioten ahotsak entzun ziren, baina baita zuzenean lotuta egon ez zitezkeen beste iritzi batzuk ere. Nolanahi ere, bat zetozen baliabide gutxiago behar zituzten eta komunitatearen helburuen arabera **konplexutasun ebolutiboa eta modulagarria** zuten egituretara joaten saiatzearekin.

Azkenik, aurkeztutako agertokiak eta guztien artean baloratu genituen gaiak gogora ekarriz, lehenengo momentu batean interesgarriena edota bideragarriena izan zitezkeenaren inguruan **kokatzeko** eskatu zitzairen.

## Agertokiaren buruzko lana



Taldearen interes orokorra aztertu ondoren, taldeka **agertoki posibleak xehetasun handiagoz** lantzen hasi ziren. 4 eta 5 pertsona arteko lau talde sortu zituzten. Talde bakoitzari aurkeztutako agertokiak eta agertoki berrien fitxak (zuriz) eman zitzaizkion, hortik abiatuta bere proposamenak sortzeko, **planteatutako proposamenetan inspiratu** ahal izateko, edo horietatik erabat bereizi eta **beste berri bat sortzeko**.

Euren errealitate eta motibazioetan oinarritutako agertoki komun baten prototipo-arietatik **E-kin-entzako 5 garapen-proposamen** atera ziren:

## PROPOSAMENA 1 PROPUESTA

**Proposamenaren deskribapena / Descripción de la propuesta:**

Programa de mentoría en distintas áreas del diseño. E-kin como paraguás que acoge distintas agrupaciones.

**Puntuak / Por puntos:**

- Zein da bere helburua? / ¿Cuál es su objetivo?**  
Facilitar información útil. Mayor visibilidad.
- Zenbatero? / ¿Con qué periodicidad?**  
Facilitar información útil. Mayor visibilidad.
- Nola funtzionatzen du? / ¿Cómo funciona?**  
Mapa de mentores por áreas de diseño. Programa de compromiso por 1 año de mentoría.

**Parametroak / Parámetros:**

- Konpromiso- eta dedikazio-maila / Nivel de compromiso y dedicación**
- Antolamenduaren konplexutasuna / Complejidad organizativa**
- Baliabide ekonom., espazialak, etab./ Recursos económ., espaciales, etc.**

**Inpaktua / Impacto:**

**Ekarpen + / + Aportaciones**

- Contactar con otras agentes, organizaciones...
- Posibles sesiones abiertas de temas de interés general (trimestral)
- Transición conocimiento-experiencia / Intercambio de inquietudes
- Mentoring proceso (4 horas año)

## PROPOSAMENA 2 PROPUESTA

**Proposamenaren deskribapena / Descripción de la propuesta:**

Grupo de mujeres que organizamos talleres y dinámicas trimestrales sobre un tema concreto. Cada grupo se dedica a investigar y desarrollar posibles mejoras a un problema o cuestión apoyándose en el grupo coordinador para ejecución del evento. Ofrecer recursos (contactos, lugares...) para continuar dicha investigación e impacto.

**Puntuak / Por puntos:**

- Zein da bere helburua? / ¿Cuál es su objetivo?**  
Crear y mantener relación con el grupo. Compartir otras realidades.
- Zenbatero? / ¿Con qué periodicidad?**  
Cada tres meses. (Continuidad en el trabajo).
- Nola funtzionatzen du? / ¿Cómo funciona?**  
Por grupos de trabajo + Grupo de coordinación

**Parametroak / Parámetros:**

- Konpromiso- eta dedikazio-maila / Nivel de compromiso y dedicación**
- Antolamenduaren konplexutasuna / Complejidad organizativa**
- Baliabide ekonom., espazialak, etab./ Recursos económ., espaciales, etc.**

**Inpaktua / Impacto:**

**Ekarpen + / + Aportaciones**

- Competencia vs aliadas
- Colaborar desde el feminismo
- Temas -> subgrupos?
- Línea estratégica -> objetivo
- Parte de tu trabajo, no carga de tu trabajo

## PROPOSAMENA 3 PROPUESTA

**Proposamenaren deskribapena / Descripción de la propuesta:**

Crear un grupo de trabajo.  
Mejorar el entorno profesional de las diseñadoras

**Puntuak / Por puntos:**

- Zein da bere helburua? / ¿Cuál es su objetivo?**  
Aplicar mínimos de igualdad en el entorno profesional (plan de igualdad, protocolo, acoso, etc.
- Zenbatero? / ¿Con qué periodicidad?**  
Reuniones mensuales con tareas intermedias
- Nola funtzionatzen du? / ¿Cómo funciona?**  
Mínimo 3 personas: recabar información, analizar y sintetizar contenidos. Difusión y contacto con entidades. Pensar cómo ponerlo en práctica

**Parametroak / Parámetros:**

- Konpromiso- eta dedikazio-maila / Nivel de compromiso y dedicación**
- Antolamenduaren konplexutasuna / Complejidad organizativa**
- Baliabide ekonom., espazialak, etab./ Recursos económ., espaciales, etc.**

**Inpaktua / Impacto:**

**Ekarpen + / + Aportaciones**

- Contactar con otras agentes, organizaciones...
- Posibles sesiones abiertas de temas de interés general (trimestral)
- Transición conocimiento-experiencia / Intercambio de inquietudes
- Mentoring proceso (4 horas año)

## PROPOSAMENA 4 PROPUESTA

**Proposamenaren deskribapena / Descripción de la propuesta:**

E-kin es una comunidad formada por diseñadoras que desarrollamos diferentes líneas de acción en base a una estrategia común con el objetivo de generar sesiones internas y externas reflexivas en las que tratamos temáticas concretas que busque generar un impacto positivo y transformador, donde nos organizamos en base a una gobernanza colaborativa, fluida y bien organizada. Ejemplo: Kosorkuntza ekosistema.

**Puntuak / Por puntos:**

- Zein da bere helburua? / ¿Cuál es su objetivo?**
- Zenbatero? / ¿Con qué periodicidad?**  
2-3 topaketa internas + acciones/ topaketa externas relacionadas con escenarios específicos del sector
- Nola funtzionatzen du? / ¿Cómo funciona?**  
Por retos

**Parametroak / Parámetros:**

- Konpromiso- eta dedikazio-maila / Nivel de compromiso y dedicación**
- Antolamenduaren konplexutasuna / Complejidad organizativa**
- Baliabide ekonom., espazialak, etab./ Recursos económ., espaciales, etc.**

**Inpaktua / Impacto:**

**Ekarpen + / + Aportaciones**

- Temáticas concretas
- Cuidado mutuo
- Amadrinar proyectos
- Mentoring proceso (4 horas año)

5

PROPOSAMENA 5 PROPUESTA

**Proposamenaren deskribapena / Descripción de la propuesta:**

Visibilización de productos de diseño feminista


**Puntuak / Por puntos:**

- **Zein da bere helburua? / ¿Cuál es su objetivo?**  
Generar contenido de productos / proyectos de diseño feminista y divulgarlo a la sociedad (audiovisual/presentaciones)
- **Zenbatero? / ¿Con qué periodicidad?**  
Proyecto acotado en el tiempo (f. ? ejecución)  
Proyecto sensibilización 1 año: programado
- **Nola funtzionatzen du? / ¿Cómo funciona?**  
Crear convocatoria según tipología / Recopilar info + editarlo / divulgación (física-digital) / Crear web + RRSS/ Comisariado + comunicación

**Parametroak / Parámetros:**


- **Konpromiso- eta dedikazio-maila / Nivel de compromiso y dedicación**  
2 meses intensos + xh. mensuales + evento
- **Antolamenduaren konplexutasuna / Complejidad organizativa**
- **Baliabide ekonom., espazialak, etab./ Recursos económ., espaciales, etc.**

**Inpaktua / Impacto:**



**Ekarpen + / + Aportaciones**

- Convergencia en eventos sectoriales de otras disciplinas
- Conectar redes existentes:
  - Pecha Kucha 18/11/23
  - Sarean
  - Verónica B.
  - Ozerin Olatz
  - Investigadoras
- Red de redes
  - Punto de encuentro
  - Buscar y conectar personas con proy. de interés



Ezustea izan zen hain proposamen **anitzekin** topo egitea. Oro har, **konplexutasun eta inplikazio behar handia** planteatzen zuten, gutxienez kolektiboaren zati baten aldetik. Ambizioa, sektorean edo gizartean **inpaktu handiagoa** lortzea izan zen.

\*Xehetasunak [Miron](#) ikusi ahal dituzue, baita galderak egin.

## Bateratze lana



Berriro elkartu ginen talde bakoitzaren proposamenak entzun ahal izateko, eta bakoitzaren inguruko **gogoetak eta xehetasunak** partekatu genituen. Proposamen **ugari eta anitzak** lortu genituen, hala nola, mentoriak eta tailerrak, edota lantaldeek antolatutako komunitateak. Adostasuna bi arlotan nabarmendu zen: gure artean eta beste eragile batzuekin **konektatuta** egoteko beharra; eta batez ere, **elkarri sostengua** ematea.

## Adostasuna eta inplikazioa



Parte-hartzaileen **aktibazioarekin** amaitzeko eta proiektuaren **jarraipena bultzatzeko**, bertaratutakoei euren fitxan proiektuarekiko izan zitzakeen inplikazio-maila markatzeko eskatu zitzaien. **Talde eragileko kide izateko** interesa erakutsi zezaten, nahiz eta oraindik ez jakin nola. e-kin proiektuaren garapenean figura pasibotik aktiborako jauzia eginez.

Horretarako, gomets bat baino ez zuten utzi, honako kolore-kode honek gidatuta:

- **Berdea** → **Topera noa!** (talde eragilearen parte izan nahi dut).
- **Horia** → **Zalantzak ditut.** Baina hurrengo urratsa jakinarazi iezadazue eta zer egingo dudan erabakiko dut.
- **Gorria** → **Noski ezetz.** Barkatu, baina ezin naiz tartean sartu.

## Itxierako hitza



Azkenik, saioari amaiera emateko, parte-hartzaile bakoitzak saioaren inguruan **garrantzitsuena jasoko zuen hitz bat idatzi zuen**. Izenen txartelaren atzealdetik apuntatzeko eskatu zitzaien eta aurretik eraikitako **hari gorriaren sarean** zintzilikatzeko.

## Bazkaria elkarrekin



Jardunaldiaren funtsezko ataletako bat harreman-gune informalak izan ziren. Horretarako, iristeko uneaz gain, garrantzitsuena **elkarrekin bazkaltzea** izan zen. Mahai baten inguruko elkarriketen aberastasuna indartu nahian, **elkartrukerako eta harremanetarako gune** hau planteatu zen.

## 2.3. Ondorioak eta hurrengo urratsak

Topaketari buruz jasotako **balorazioak**, informalki zein formalki (online formularioaren bidez), **oso positiboak** izan dira, espektatibak betez. **Harreman-guneen** balioa, **zaintza-arretarena** eta guztiek sortutako **giro ona** nabarmendu zen. Askatasunez adierazteko **erosotasun eta konfiantza** espazio bat eraikitzea funtsezkoa zen guretzat.


Harrিতa geratu ginen taldeak komunitate gisa inplikatzeko eta *e-kin* aktibatzeke adierazi zuen **motibazio eta kezkarekin**, eta hori oso positiboa eta pozgarria izan zen.

Hori dela eta, taldeak jardunaldiaren ondoren bilera bat egiteko konpromisoa hartu zuen, **e-kin-en jarraipena kolektiboki** pentsatzeko.

Gure aldetik, egindako lana dokumentu honetan jaso dugu, parte-hartzaileek eta bertaratu ezin izan zutenek **prozesuaren berri izan dezaten**.

Materialak ordenatzen eta gainerako lankideei aurrerapenen berri ematen jarraituko dugu, eta **jarraipen bilerarako** lehen deialdia egingo dugu.


## Errelatoria grafikoa



Lan-saio osoan zehar **Femgarabat**-eko lankideak gurekin egon ziren, arretaz **entzuten eta begiratzen**, ondoren kontakizun grafiko zoragarri hau eraiki zuten ekarpenak jasoz.

\*Xehetasunak ikusteko: [Miro](#).

## Hozkailuan...



"Hozkailuan" geratu ziren gai batzuk bildu ditugu, **kezkatzen** gaituzten, **interesatzen** zaizkigun edo **inspiratzen** gaituzten gaiak dira, baina topaketan garatzeko lekurik izan ez zutenez, **beste une batean erantzuteko** geratzen dira.

**"Diseinatzaileen etxea"** → Etorkizuneko sortzaileei eragin  
Zer eman diezaiokezu ekosistemari? Eta, zer eman diezazuke ekosistemak zuri?

### Amadrinatzeko eredu

- ↳ Gariza
- ↳ Etxebeteta (etxea beteta) → egoitzak

## 3. PENTSA KUTXA



### Diseinua eta Feminismoak Euskal Herrian.

2023ko azaroaren 18an, Zabalguneko eraikinean.

#### 3.1. Helburuak eta metodologia

Pentsa Kutxaren **helburua diseinu feministarekin** eta **emakumeak Euskal Herriko diseinuaren esparruan duen egoera profesionalarekin** lotutako proiektu eta ekimenak ikusaraztea izan zen.

Goizean egindako saioan ez bezala, jarduera honek publiko guztiarentzat **sarrera librea** izan zuen, **diseinuaren eta feminismoen** inguruko dibulgazio eta inspirazio **gune mistoa** izan zedin.



## Deialdi irekia



Deialdi ireki bat egin zen, eta, horren bidez, Pentsa Kutxa osatuko zuten **proiektuak hautatu ziren**, eta, gainera, diseinuaren barruan **diziplinen aniztasuna** landu zen. Arkitektura, espazioa eta hiriko esku-hartzeak ikusgai egon ziren, baita artisautzatik edo artetik hurbil dauden proiektuak, edota zerbitzuen diseinuaren, komunikazioaren eta diseinu grafikoaren adibideak. Gainera, **jatorriari dagokionez, aniztasuna** lortu zen, Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Iparraldeko hizlariak izan baitziren.

Hona hemen hautatutako proiektuen zerrenda:

- Creativity is Female, Estudio Avocado - Alazne Ustaran eta Cris Rey
- ARQSarean, Eliana Zamalloa
- Repensar para habitar lo doméstico, HALO Arkitektura - Irantzu Ibañez Espinosa
- Revolución creativa, Loreta Piruleta - Lorena Alonso Sánchez
- Errenteriako mural feminista, GERO arte - Claudia Pennese
- Lemoako berdintasun foroa, Maraka - Eider Aldape
- Aidarte, Aida Pérez

Eta bi hauek, hautatuak izan arren, azkenean ezin izan ziren aurkezpenetara joan:

- Espazio-politiken eskuliburua, Juntura - Ana Almandoz Forcén
- Oñatiko emakumieon etxia, Juntura - Edurne Izagirre Elizaran

## Aurkezpen laburrak



Jarduera honen formatuari dagokionez, **aurkezpen laburren** erakusketa bat izan zen, **diseinuaren hainbat sektoretako proiektuen aniztasuna** modu arin, dinamiko eta zehatzean ezagutaraztea helburu zuena. Guztira 8 emakumek aurkeztu zituzten beren proiektuak (7 proiektu) eta 28 parte-hartzaile izan ziren.

## Eztabaida



Aurkezpenen ondoren, **eztabaida kolektiborako dinamika** bat egin zen, azalpen horien inspirazioa komunitatearen saioan identifikatutako ideia eta nahiekin lotzen saiatuz. Ondoren, goizeko **hitzen sarea** elikatzeko eskatu genien. Hori izan zen, hain zuzen ere, Bilbao Bizkaia Design Week 2023ko **Arrecife erakusketaren** barruan "e-kin-eko jarduerak" ordezkatu zuen objektua. 35 pertsona inguruk parte hartu zuten, jardunaldian zehar kopuru aldakorra izanik.

## Errelatoretza grafikoa



Arratsaldeko saioan zehar, **dibujatoelrato** taldea egon zen, talde ireki eta autogestionatua. Marrazkiarekiko grina partekatzen duten pertsoenez osatua dago, eta haien artean zein inguruko komunitateekin marrazteko praktikaren bidez erlazionatzen dira, bai kalean bai naturan. **Aurkezpenen eta eztabaidaren hainbat ilustrazio** egin zituzten.

## 3.2. Proiektuak

Puntu honetan, aurkeztutako 7 proiektuei buruzko informazio orokorra jaso dugu, baita hautatutako beste bi proiektuei buruzkoa ere, azkenean, hainbat arrazoi tarteko, Topaketan parte hartu ezin izan zuten arren.

### Pentsa Kutxaren aurkezpenak

#### → CREATIVITY IS FEMALE

Avocado - Alazne Ustaran eta Cris Rey

##### Deskribapena

Creativity is female ekimenaren helburua emakumeek sormenaren esparruan duten egoera agerian uztea da. Gaiari buruzko bizipenak eta esperientziak biltzen dituen Instagram kontua eta webgunea da.

##### Lortu nahi dituen helburuak

Emakumeek sormen-industrian duten eginkizuna eta aurre egin behar dieten arazoak eta desberdintasunak agerian utzi.

##### Nork sustatzen du eta nork garatzen du?

Avocado, Gasteizko branding eta diseinu estudioa, Alazne Ustaranek eta Cris Reyk sortu dute.

##### Kokapena

Nazionala

##### Proiektuaren webgunea

<https://creativityisfemale.es/>



##### Proiektuaren sare sozialak

Instagram: @creativityisfemale

[Pentsa Kutxaren aurkezpenaren bideoarako esteka](#)

## → ARQSarean

Eliana Zamalloa

### Deskribapena

ARQSarean lankidetza-plataforma bat da, eta emakume profesionalen eta diskurtso ofizialetik kanpo dauden pertsonen lana ikusaraztea, indartzea eta sustatzea du helburu, arkitektura, hirigintza eta ondare diziplinetan.

### Helburuak

- > Diziplina horietan parte hartu ez duten emakumeei edo ikusezin bihurtu diren talde minoritarioei esperientziak eta ekarpenak partekatzea.
- > Feminismoan, ekologian, interseksionalitatean, dekolonialtasunean, iraunkortasunean eta beste gai berritzaile batzuetan jorratutako arloetan ekarpenak eta edukiak sustatzea eta zabaltzea.
- > Herritarren kontzientzia aktibatzeke ekintzak antolatzea eta abiaraztea, diziplina horietan baztertutako emakumeen eta pertsonen eskubideak ikusaraziz.
- > Diziplina horietan emakumeen eta profesionalen sareak egituratzea, toki, nazio eta nazioarte-mailan.
- > Genero-berdintasuna sustatzen duten lanbide-eremu horiekin jarduerak egitea.
- > Genero-kongresu akademikoetan parte hartzea, arkitekturari, hirigintzari eta ondareari dagokienez.
- > Esparru horietan ikerketak garatzea, feminismoa eta interseksionalitatea oinarri hartuta eskubideen berdintasuna bilatzeko.



### Nork sustatzen du eta nork garatzen du?

Gure ekimenetik proposamena sustatu eta garatzen dugun arkitekto-talde bat. Aspalditik *e-kin*-ekin harremanetan gaude. Nazioarteko sareen laguntza eta lankidetza dugu: Soy Arquitecta.net, Un día Una Arquitecta, Nuestras Arquitectas, GADU eta Lina plataforma.

### Kokapena

Euskal Herria

### Webgunea

<https://arqsarean.wordpress.com/>

### Sare Sozialak

Facebook: @arqsarean

Instagram: @arqsarean


[Pentsa Kutxaren aurkezpenaren bideorako esteka](#)

## → ETXE-BIZITZA BIRPENTSATU

HALO Arkitektura - Irantzu Ibañez Espinosa

### Deskribapena

Proiektuak etxeko espazioei buruzko hausnarketa bat sortu nahi du, haien inertiari buruz, nagusi diren espazioen (ez neutroen) ezaugarri inplizituei buruz eta etxeko habitata deseraikiz alternatibak elkarrekin bilatzeari buruz. Partaidetza sustatu nahi da, bertan bizitzearen berezko balioak, ezaugarriak eta elementuak birpentsatzeko. Horretarako, argitalpen txiki bat sortu da, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak 2023ko Mugak Bienal programarako ematen dituen laguntzen barruan.



### Helburuak

Etxean bizitzeari buruzko hausnarketa hasi nahi da, birpentsatu. Inertzia nagusiaren (patriarkalaren) aurkako kontra narratibak dituen kultura kritikoa sustatuz, alternatiba berriak birbizitzeko eta agerian jartzeko asmo sendoa dago.

### Nork sustatzen du eta nork garatzen du?

Proiektu-argitalpena HALO arkitekturak garatu du. Irantzu Ibañez Espinosak eta Andoni Duque Ingunzak osatzen dute, Amsterdamen bizi diren What The Studio taldeko diseinatzaile grafikoekin batera (Ekhiñe Dominguez eta Sara Landeira). Argitalpena Bienal Mugak eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak sustatu dute.

### Kokapena

Bilbo - Mugak pabilioia/ HABITatuz +  
Donosti IAE-EAI

### Webgunea

<https://www.bienalmugak.eus/es/conferencias/151-presentacion-de-la-guia-divulgativa-repensar-para-re-habitar-lo-domestico>

### Redes sociales

Instagram: @re\_domestico

[Pentsa Kutxaren aurkezpenaren bideorako esteka](#)

## → IRAULTZA SORTZAILEA

Loreta piruleta, Lorena Alonso Sánchez

### Deskribapena

Sormen-tailerren gunea, arte plastikoen bidez zorientasun, ongizate eta osasun mental handiagoa aurkitzen lagunduko diguna, adibidez, collage analogikoa, pintura sortzailea, materialak berrerabiltzea, irakurketa eta idazketa. Tailerrak leku oso segurua eta eroso dira, non artearen bidez emakume bakoitzak bere ahalmen sortzailea azter dezake. Tresna horiek gure historiarekin konektatzea erraztuko digute. Sormena lantzeko, erlaxatzeko eta norberari tarte bat eskaintzeko ezin hobea.



### Helburuak

Helburua astero emakumeen sormena lantzea, bere autoestimua, dibertsioa eta adierazpena indartzea da, saio horien fruituekin, diseinuekin eta elaborazioekin, beren udalerrietan modu positibo eta zirrargarrian batuz

### Nork sustatzen du eta nork garatzen du?

Tailerrak Lorena Alonsok emango eta garatuko ditu, Loreta Piruleta marka ekintzaile eta sortzaile gisa.

Tailerrak egiteko lokalak eskaintzen dituzten zentroetako arduradunekin lankidetzan aritzen da.

Profesional adituekin lankidetzan aritzea, hainbat gai jorratzeko: birziklatzea, pigmentuen tratamendua, muralistak, collagea...

Lankidetzak DT Creativosekin, euskarri logistiko eta maker gisa.

Azken lankidetzak udalekin, landutako proiektuen eta diseinuen aurkezpen-kokalekuak errazteko

### Kokapena

Bizkaia

[Pentsa Kutzaren aurkezpenaren bideorako esteka](#)

## → ERRETERIAKO MURAL FEMINISTA

GERO arte - Claudia Pennese

### Deskribapena

Herriaren erdigunea Erretereriako Emakumeen Etxearekin lotzen duen kale batean, talde feminista baten lan ostean, herriaren historia feministaren mugarriak berreraikitzeke prozesu parte-hartzailea abian jartzea erabaki zen, aipatutako sarbide-kalea definitzen duen horman irudikatuta. Zirriborroa onartu ondoren, abian jarri zen exekuzioa, bertan herriko emakumeak zuzenean inplikatu ziren, 2021eko uztailean.



### Helburuak

Emakumeen historia ezkutua, beren errebindikazio-borrokak hiri-espazioan bertan ikusaraztea. Prozesu horren bidez, degradatutako kale bat birsortzen da, eta espazioa emakumeen figuren bidez etsitzen da, historikoki eremu publikotik urrun baitaude.

### Nork sustatzen du eta nork garatzen du?

Proiektua Emakumeen Etxean hirigintza feministari buruz emandako prestakuntza-ikastaro baten barruan sortu da. Lehen ideia horren harira, emakume talde txiki bat abian jartzeko lanean jarri zen, Emakumeen Etxearen beraren eta Udaleko Berdintasun Sailaren laguntzarekin.

### Kokapena

Gipuzkoa, Erretereria

### Sare sozialak

Instagram: @geroarteburb

[Pentsa Kutzaren aurkezpenaren bideorako esteka](#)



## → LEMOAKO BERDINTASUN FOROA, Maraka - Eider Aldape

### Proiektuaren deskribapena

Lau fasetan banandutako parte-hartze prozesua da. Fase bakoitzean ekintza desberdinak garatu dira, Lemoako Udaleko Berdintasun Foroaren definizioa lortzeko nahian.

### Lortu nahi dituen helburuak

Proiektu honen helburu nagusia Lemoako Udaleko Berdintasun Foroaren definizio zehatza aurkitzea da.

Halaber, Berdintasun Foro herritarraren helburu nagusia Lemoan gune koordinatu bat izatea da, modu parte-hartzailean berdintasun-politikei eta gaiei buruzko proposamenak lantzeko, eztabaidatzeko eta sortzeko.



### Nork sustatzen du eta nork garatzen du?

Lemoako Udala. Maraka Berdintasun Gunearen araudia sortzeko partaidetza-prozesua dinamizatzeaz arduratu zen. Gaur egun, Foroa martxan dago, eta udalerriko berdintasun-teknikariak dinamizatzen du.

### Kokapena

Lemoa, Bizkaia

### Proiektuaren webgunea

<https://www.lemoa.net/es-ES/Servicios/Departamentodelgualdad/Paginas/berdintasun-gunea.aspx>

[Pentsa Kutxaren aurkezpenaren bideorako esteka](#)

## → AIDARTE

Aida Pérez

### Deskribapena

Emakumearen egoerari, ahalduntzeari eta feminismoari buruzko komunikazio-kanpaina desberdinak dira, hainbat proiekturen bidez: Tócate las tetas / Hombre feminista / Fuimos, somos y seremos / Martxoaren 8a, Bilboko Udalan.

### Lortu nahi dituen helburuak

Ekitatearen aldeko komunikazioa eta militantzia ekitatearen alde. Emakumeen ahalduntzea.

### Nork sustatzen du eta nork garatzen du?

Aideartek eta bezeroek

### Kokapena

Bizkaia

### Proiektuaren webgunea

<https://www.aidearte.com>



### Proiektuaren sare sozialak

@aidearte

[Pentsa Kutxaren aurkezpenaren bideorako esteka](#)

## Pentsa Kutxan aurkeztu ez diren proiektuak

### → ESPAZIO-POLITIKEN ESKULIBURUA

Ana Almandoz Forcén

#### Deskribapena

Inguratzen gaituzten elementu arkitektoniko konkretuetatik abiatuta, espazio fisikoa inguratzen duten politiken inguruan hausnarketa bultzatu nahi du irakurketa antzeztu honek. Zer dago baimendua espazio publikoan, eta zer debekatua? Nor mugitu daiteke libreki eta nor ez? Zer da traszendentala eta zer banala? Nork hartzen ditu erabaki hauek? Noren babesarekin? Ba al dago aldaketarako aukerarik? 2020ko

#KUTSATU Feministaldirako berariaz sortutako lana da, 5 atal-elementuz osaturikoa: bankua, gortina, farola, esekitokia, etxea. Hauetako bakoitza aitzakiatzat hartuz, ikuslearengan gogoeta eragin nahi du. Izan ere, arkitektura eta hirigintza, jende gehienari hitz arrotzak egiten bazaizkio, errealitatean guztion egunerokotasunean oso presente daude. Konturatzen ez bagara ere, guregan eragina dute, munduan eragina duten beste faktoreek ere eurengan eragina duten bezala: botere harremanak, bortizkeria eta beste hainbesteren erresonantzia kaxa izan daitezke. Horretarako, 3 antzeztelek bakarrik eta elkarrizketa formatuak erabiltzen dituzte, pertsonaia ezberdinak tulara ekarriz, eszenografia mínimo bat lagun dutela.

#### Helburuak

- Feminismotik, onartutzat ematen diren hainbat ideia kuestionatzea
- Ikuslegoa arkitektura eta hirigintzaren inguruan boteretzea
- Objektuen diseinuak, segurtasunaren perzeptzioak, zaintza lanek, prestigioak genero-marka badutela adieraztea

#### Nork sustatzen du eta nork garatzen du?

Feministaldiako antolakuntzak gonbidatuta sortutako elkarlana da, Ula Iruretagoiena, Michela Lamedica eta Ana Almandoz arkitektuen artean.

#### Kokapena

Edozein lekutan



#### Webgunea

<https://www.youtube.com/watch?v=3dCX7VvFRrl>

## → OÑATIKO EMAKUMION ETXIA

Edurne Izagirre Elizaran

### Proiektuaren deskribapena

Oñatiko udalak bere jabegotzan dagoen kaxkoko eraikin bat Oñatiko Emakumeen topaleku izango den Etxe bilakatzeko prozesua jarri du abian. Berdintasun eta parte-hartze sailen bultzadaz eta eragile ezberdinekin elkarlanean hainbat fasetan banatutako

proiektua osatu dute eta Juntura Kooperatiba aurreproiektu mailako diseinua garatzeko kontratatuak izan gara. Aurreproiektu honek Oñatiko emakumeekin burututako parte-hartze prozesu bat izan du oinarri, Farapi kooperatibarekin batera gidatu duguna. Proiektuak Oñatiko emakume talde ahalik eta anitz eta zabalentzat erreferente izango den espazio bat sortzea du helburu, eta hainbat zerbitzu eta jarduera eskeintzeaz gain, emakumeentzat babesleku, elkar ezagutzeko toki, eta emakumeen arteko saretzea bultzatuko duen etxe izatea bilatzen da, askatzeko, ahalduntzeko, formatzeko, sortzeko zein birsortzeko balioko duena. Era honetan, parte-hartzaile eta Udalarekin batera Oñatiko emakumeen beharrak eta desirak identifikatu, Etxearen antolaketa espaziala definituko duten irizpideak finkatu eta diseinu proposamen bat gauzatu dugu.



### Lortu nahi dituen helburuak

- Oñatiko emakumeentzat erreferente bilakatuko den espazio bat sortu.
- Oñatiko emakumeen behar eta desirein erantzungo dien antolaketa espazial bat diseinatu.
- Ondare eraikia babestu eta balioan jarri (XV. mendeko zurezko piezak topatu dira).
- Parte-hartze prozesuaren bitartez herriko emakume-talde ahalik eta anitz eta zabalentzat ahotsa entzun eta diseinura eraman.
- Prozesua bera herriko emakumeak sartzeko eta ahalduntzeko baliatu.

### Nork sustatzen du eta nork garatzen du?

Sustatzailea: Oñatiko udala; bideratzailea: berdintasun eta parte-hartze sailak; Parte-hartze prozesuaren gidaritza: Farapi Kooperatiba


### Kokapena

Oñati, Gipuzkoa

### Proiektuaren sare sozialak

@emakumionetxia

## 4. JARRAIPENA



### 4.1. Hurrengo urratsak

e-kin-eko III. topaketa **inflexio puntua** izan da proiektuarentzat. Bi urtez Zirikatuz Talde Feministak eta Wikitokik proiektua bultzatu ondoren, hurrengo etapan, e-kin-ek komunitatearen eta talde eragile zabalago eta anitzago baten arteko zaintza partekatua eta zainketa izatea bilatuko du.

e-kin-en jarraipena martxan dago. Urtarrilaren erdialdean, itzulpen-txosten hau idazten ari ginela, **e-kin-eko komunitate osoa bilera batera deitu genuen**, baina, batez ere, III. topaketan **talde eragilean rol aktiboagoa** izateko interesa agertu zuten emakumeei. Bilera honen helburua hurrengo urratsak zehazteko **beste pausu bat ematea** eta **talde gisa antolatzen eta koordinatzen** hastea izan da. 2024an egingo diren lehenengo bileretako gai-zerrendetan honako hauek egon beharko dute:

- Talde honen barruan, talde eragile berrian, gobernantza eta rola definitzea .
- e-kin 2024ko agertokian lan egitea, III. topaketan egindako lanaren arabera. Buru den taldeari hobekien egokitzen zaion proposamena erabakitzea eta zehaztea.
- Finantziazio-bide berriak edo alternatibak identifikatzea
- 2024an Emakunderen eta BFaren deialdietara aurkezteko aukera aztertzea.

## 4.2. Konexio espazioak

**Harremanetarako, informazioa partekatzeko eta aurrerapenak jasotzeko guneak** prozesuari jarraipena emateko garrantzitsuak dira, baita pertsona berriei sarbidea errazteko ere.

Horretarako, eta oraingoz, espazio hauek ditugu edo aurreikusten ditugu:

### Webgunea

Gaur egun Wikitokiren domeinuan kokatuta dagoen [webgunea](#), interesa dutenentzat oinarrizko informazioaren erreferentzia-leku gisa, eta informazio gehiago lortzeko edo inplikatzeko beste kanal batzuetara, hala nola postara, bideratzeko. Etorkizunean baloratu beharreko aukera bat webgune propio bat izatea litzateke, "e-kin" gisa, bere funtzionaltasuna eboluzionatzeko aukera emango ligukeena, informazio-gune gisa ez ezik, eduki-gordailu, profesionalen/eragileen bilatzaile... edo sortzen ari diren beste gaitasun batzuk izateko ere.

### Posta

Posta bidezko komunikazioa ([ekin.sororidad@gmail.com](mailto:ekin.sororidad@gmail.com)) prozesua ezagutzera emateko bide nagusia izan da, baita ondoren topaketetako partaidetza baieztatzeko. Kanal hori bide formal gisa mantentzea garrantzitsua iruditzen zaigu, informazio-dentsitate handiagoko partekatzeko gaitasuna duelako.

### RRSS

Proiektuaren komunikazioa eta ikusgarritasuna ere funtsezko atala da, proiektua ezagutarazteko eta pertsona berriak erakartzeko biderik zuzena eta anitzena da. Gaur egun, Wikitokiko sareen eta kolaboratzaileen edo norbanakoen sareen bidez presentzia dugu, honako gune hauetan:

**Instagram:** [@wiki\\_toki](#) | Gaur egun gehien erabiltzen eta gehien ikusten den plataforma.

**Twitter:** [@wiki\\_toki](#) | Hainbat pertsona eta eragilerekin konektatzeko sare idatzia.

**Youtube:** [Wikitoki Elkarte](#) | Ikus entzunezko edukia partekatzeko espazioa.

Une batean, hala badagokio, "e-kin" espazioa edukitzeko itxaropenarekin.

### Telegram

Komunikazio arinago, zuzenago eta hurbilagorako, 2022an proiektuaren berri izan nahi duten pertsoneri irekita dagoen [Telegram](#) talde bat sortzea proposatu zen.

Bestalde, e-kin taldean modu aktiboagoan parte hartu nahi dutenentzat, bigarren telegram-talde bat sortu da: Telegrameko [talde eragilea](#). Talde horren helburua da talde eragileko kideen artean modu arinean koordinatzea eta komunikatzea.

Tresna modu osasuntsuagoan erabiltzen saiatzeko, honako **akordio** hauek proposatzen ditugu:

#### **Zertarako bai**

- Abisuak emateko ('berandu noa', 'mezu bat bidali dizuet').
- Zerikusia duen eta interesgarria den informazioa partekatzeko.
- e-kin-eko lan-lerroekin lotutako ekitaldi/tailerren iragarkia partekatzeko.
- Diseinuaren sektoreko lan-eskaintzak partekatzeko.

#### **Zertarako ez**

- Gai delikatu edo konplexu bat eztabaidatzeko. Askoz hobe aurrez aurreko topaketa batean egitea.
- Gai garrantzitsuekin zerikusia duten erabakiak hartzeko.
- e-kin-ekin zerikusia ez duen informazioa, ekitaldiak, eta abar bidaltzeko.

#### **Kontuan hartu behar diren gauza batzuk**

- Diskurtsoan norberak bere burua mugatzea (ekologiagatik)
- Taldean garrantzitsuak ez diren elkarrizketak/iruzkinak saihestu.
- Ezin da parte-hartze erregularra edo berehalako erantzuna itxaron. Litekeena da gainerako pertsonak adi ez egotea mezu bat bidaltzen duzunean.
- Oso ohitura eta behar desberdinak ditugu; horregatik, telegram bidezko komunikazio-ordutegia 08:00etatik 20:00etara mugatzea erabaki dugu.

## **Miro**

Azkenik, Miro taula interaktibo komun batean oinarritua dagoen plataforma bat da, eta hainbat pertsonak bertara jo eta ekarpenak egin ditzakete. [Miron sartzeko esteka](#).

Gaur egun, hainbat atal ditu, eta horiek elikatzen jarrai daiteke, baita espazio berriak sortzen ere:

- Eragileen mapaketa
- Lehen topaketako ekarpenak
- Lehen topaketako ondorengo hausnarketa
- Online itzulketaren ekarpenak
- Lehen topaketako ekarpenak
- Bigarren topaketako ekarpenak
- Hirugarren topaketako ekarpenak

## **Aurreko edizioak**

<https://wikitoki.org/eu/proiektuak/e-kin> proiektuaren historikoa dago. [Esteka honen bidez](#) 2022ko saioen xehetasunak eta emaitzak ikus daitezke.

### 4.3. Parte-hartzea

Prozesuari jarraipena emateko eta *e-kin*-en parte izan diren eta parte izan daitezkeen ikuspegi desberdinetatik elikatzen jarraitu ahal izateko, funtsezkoa da pertsona horien inplikazioa eta parte-hartze aktiboa. Konexio-espazioek elkarreragin eta konpromiso maila desberdinak ezartzen dituzte, proiektuan parte hartzeko aukera izan dezagun.

Egia da bizi-erritmoek eta kontziliazioak, besteak beste, zaildu egiten dutela proiektu berrietan parte hartzea, baina *e-kin*-etik komunitate bat diseinatzea eta artikulatzea proposatzen dugu, gure beharretara egokituko dena eta guztiontzako bizi-baldintza hobek lortzeko borrokatuko duena. Baina, horretarako, gutxieneko egitura, dedikazioa, konstantzia eta abar beharko ditugu, komunitatea aktibatu eta proiektua aurrera atera ahal izateko. Horregatik, berriro gonbidatzen zaituztegu *e-kin*-en parte izatera, ahal duzuen moduan. Guztion artean eraiki beharreko proiektua da, sortzen ari diren proposamen eta ideietara irekia, era askotarikoan eta malgutasunez.

Eta, azkenik, berriz ere eskerrak eman nahi dizkizuegu zuek guztiok erakutsitako parte-hartze, interes, eskuzabaltasun, gogo eta maitasunagatik.



**ESKERRIK ASKO!!!**